

Eskerrak zuri, Euskaltzainburu Jauna,  
Eskerrak zueri, Euskaltzain jaunak.

Gaur hemen ohoratuak direnen izenak ikusi nituenean,  
ohartu nintzan hamar haritz handi eder zirela, batzu besteak  
bezain idazle eta euskaltzale emankorrek.

Eta pentsatu nuen holako haritz ederren pean, naizen  
perretxikua goxoki egonen zela aterbean eta itzalean.

Gure artetik joanak diren euskaltzale batzu ohoratzen ahal  
balitu Euskaltzaindiak, nik aurkeztuko nituzke, besteak  
beste, leku berezi batean bibli itzulpengintzan lan egin duten  
batzuk.

Badira Iparraldean, Aturri hegian, Euskal Herriaren muga-  
mugan, hiru herri ttipi elgar hunkitzen dutenak : Beskoitze,  
Bardoze eta Ahurti : Iparraldeko bibli itzultzaileen  
triangelua da.

Beskoitzekoa zen *Leizarraga*, T.B.a euskarara itzuli zuena,  
lehen aldikotz. 1571an argitaratu zen *Testament berria*.

Triangeluaren beste mutur batean : Bardoze. *Duvoisin*  
kapitainak han itzuli zuen Biblia osoa, 1865ean argitaratua.

Bi herri horien artean, bide erdi, 5 km Beskoitzera eta beste  
bost Bardozera, horra Ahurti herria, eta han Beloke.

Beloken bildu izan dira urtetan zehar liturgiarako bibli  
itzultzaileak, Pierre Andiazabal langile porrokatua zutela  
buru: han ikusi ditugu Lafitte, Charritton, Iratzeder, Larre,  
Hiriart-Urruti, Olhagaray, Etchehandy eta beste...

Gehitu behar da Beskoitzen berriz ere, hemeretzigarren  
mende hastean *Gaidor* izeneko batek *Testament Berria*  
euskarara itzuli zuela (1828an argitaratua).

Lan ixila, hurria, arnas luzea eskatzen duena. Baina berea  
emaiten du. Biblia munduko libururik ezagutuena da,  
irakurtuena, hausnartuena, itzuliena (1500  
hizkuntzetan)...eta euskaraz ere, perretxiku zenbaiti esker.

Baina, dakigunez, perretxiku guziak txapeldunak dira.

Martzel Etchehandy